



**MEMORIA
ANUAL
2024
URTEKO
MEMORIA**



EUSKADIKO FILMATEGIA
FILMOTECA VASCA



| | |
|--|----|
| SARRERA | 04 |
| INTRODUCCIÓN | |
| URTEKO ZENBAKIAK | 08 |
| EL AÑO EN CIFRAS | |
| PROIEKTU BIDEGILEA | 10 |
| PROYECTO FARO | |
| ARTXIBOA | 12 |
| ARCHIVO | |
| KATALOGAZIOA ETA DOKUMENTAZIOA | 14 |
| CATALOGACIÓN Y DOCUMENTACIÓN | |
| DIGITALIZAZIOA | 18 |
| DIGITALIZACIÓN | |
| SARBIDEA | 22 |
| ACCESO | |
| PROIEKTU BEREZIAK | 24 |
| PROYECTOS ESPECIALES | |
| PROGRAMAZIOA | 26 |
| PROGRAMACIÓN | |
| Zinema eta Zientzia / Cine y Ciencia | 29 |
| Klasikoak | 30 |
| Jazzinema | 31 |
| Euskal Emakume Zinemagileak IV / Cineastas vascas IV | 32 |
| BESTE JARDUERA BATZUK | 34 |
| OTRAS ACTIVIDADES | |
| KOMUNIKAZIOA | 44 |
| COMUNICACIÓN | |

Sarrera

Introducción

Tasio filma (Montxo Armendáriz, 1984) Boloniako L'Immagine Ritrovata laborategiak zaharberritu zuen 2023an, Euskadiko Filmategiak bultzatu, bideratu eta finantzatuta —Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzari esker—, eta zuzendari nafarrak gainbegiratu zuen prozesu osoa. 2024an nazioartean zabaldu zen filma, estreinaldiaren 40. urterrena betetzen zela baliaturik, eta emaitzak garbi erakutsi du hori dela bidea, bide nahitaezkoa, gure erakundearentzat, bere helburuetako asko betetzen baititu: euskal ondare zinematografikoaren kontserbazioa bultzatzea eta ondare hori nazioartean zabaltzeko ahalegina egitea, kopia digitalek gaur egun ematen dituzten erraztasunak baliatuta. *Tasioren* kopia zaharberritua hainbat zinema-jaialdietarako aukeratu izanak (Canneskoa -erakusleiho zinematografikorik onena, zalantzarik gabe-, Boloniakoa -film klasikoei buruzko munduko jaialdirik onena-, Donostiakoa -han estreina-tu zen filma- eta Lyongo Lumière jaialdia -han jaio zen zinematografoa eta film hau zaharberritzeko ideia bera-) argi eta garbi erakutsi du gure ondare zinematografikoa nazioartera zabaldu daitekeela eta, gainera, arrakastatsua izan daitekeela. Gainera, filmategi ugarritan ikusi ahal izan da filma, eta Frantziako Zinematekak urteko zaharberritze-lan onenen artean aukeratu du. Laster, berriz estreinatuko da filma Frantziako aretoetan. Zaharberritze-prozesuek filmak biziberritzen dituzte, eta euskal zinemagintzak ez du galdu behar aukera hori, baditu-eta mundu zabalean erakuts ditzakeen “klasikoak”.

La restauración de *Tasio* (Montxo Armendáriz, 1984), impulsada, conducida y financiada por la Filmoteca Vasca en 2023, fue llevada a cabo por el laboratorio L'Immagine Ritrovata de Bolonia gracias a la subvención del Gobierno Vasco y con la supervisión del director navarro en todo el proceso. Su difusión internacional a lo largo de 2024, coincidiendo con el 40º aniversario del estreno de la película, ha demostrado que éste es un camino irrenunciable para nuestra institución, pues cumple con muchos de sus objetivos fundacionales: impulsar la conservación del patrimonio cinematográfico vasco y propiciar su puesta en valor internacional gracias a la accesibilidad que proporcionan actualmente las copias digitales. La selección de la copia restaurada de *Tasio* en el Festival de Cannes (sin duda el mejor escaparate cinematográfico del mundo), el Festival de Bolonia (el más importante del mundo para el cine clásico), el Festival de San Sebastián (donde se estrenó) y el Festival Lumière de Lyon (donde nació el cinematógrafo y la idea misma de este trabajo de restauración) ha demostrado que la internacionalización de nuestro patrimonio cinematográfico es posible y puede ser un éxito. Además, se ha podido ver en numerosas filmotecas y ha sido elegida por la Cinemateca Francesa como una de las mejores restauraciones del año. En breve, la película se reestrenará en las salas francesas. Las restauraciones dan nueva vida a las películas y el cine vasco no debe perder ese tren, pues también tiene “clásicos” que mostrar al mundo.



Montxo Armendáriz zinemagilea, Joxean Fernández (Euskadiko Filmategiko zuzendaria) eta Andoni Iturbe (Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordea) Cannesen / El cineasta Montxo Armendáriz, Joxean Fernández (director de la Filmoteca Vasca) y Andoni Iturbe (viceconsejero de Cultura del Gobierno Vasco) en Cannes



Joxean Fernández, Montxo Armendáriz eta Bingen Zupiria Donostian / Joxean Fernández, Montxo Armendáriz y Bingen Zupiria en Donostia

Gainera, Euskadiko Filmetegiaren Kontserbazio Sailak bere lehen zaharberritze-proiektua bukatu du: Montxo Armendárizek 1981ean zuzendutako *Nafarrako ikazkinak-Carboneros de Navarra* dokumentala. Spinner S eskaner batekin zaharberritu da filma. Euskadiko Filmetegiak 2023ko amaieran erosi zion ekipo aurreratu hori MWA enpresa alemaniarri, lehiaketa publiko baten bidez eta Eusko Jaurlaritzaren finantzaketari esker. Aparatu horrek formatu guztietan digitaliza dezake, eta 13,5 K arteko kalitatea lortzen du. Ezaugarri horiei esker, zehaztasun handienarekin digitalizatu eta zaharberritu ahal izan dira filmaren fotogramak, irudien eta soinuaren kalitateak Armendárizen jatorrizko asmoa fidelitatez islatzen duela ziurtatzeko. Kontuan izan behar da, gainera, funtsezkoa izan dela Armendárizek prozesu osoan parte hartu izana.

Erakundearen historian oihartzun mediatikorik handiena lortu duten bi mugarriak izan dira. Dena dela, erritmo bizian jarraitu du lanean Euskadiko Filmetegiak: katalogazioa, kontserbazioa, ikertzaileentzako zerbitzuak, beste erakunde batzuekiko lankidetzak, etab. Lankidetzak horietako batzuk Néstor Basterretxearen (Euskadiko Filmetegiaren sortzaileetako bat) jaiotzaren mendeurrena ospatzeko antolatutako jardueren lotura egon dira, eta erakundeak aktiboki parte hartu du jardueren horietan. Programazioak 2019ko ikusle-kopurua berreskuratu du; hori da gure orain arteko errekorra. Beraz, gure erakundearen etorkizunerako oinarri sendoak jarri dira 2024an; izan ere, garapen bidean dagoen gure erakunde honek ortzi-mugan du jada bere 50. urtebetetzea, 2028an helduko baita hori.

El departamento de Conservación de la Filmoteca Vasca ha finalizado además su primer proyecto propio de restauración: el documental *Nafarrako ikazkinak-Carboneros de Navarra*, dirigido por Montxo Armendáriz en 1981. El trabajo se ha realizado con el escáner Spinner S, un avanzado equipo de la firma alemana MWA que la Filmoteca Vasca adquirió a finales de 2023 a través de un concurso público y la financiación del Gobierno Vasco. Este aparato, que puede digitalizar en todos los formatos y conseguir una calidad de hasta 13,5K, ha permitido digitalizar y restaurar con precisión los fotogramas de esta obra, asegurando que la calidad de las imágenes y del sonido reflejen con fidelidad la intención original de Armendáriz, cuya participación en todo el proceso ha sido también clave.

Estos dos hitos en la historia de la institución han sido los que más eco mediático han alcanzado. Pero las tareas habituales de la Filmoteca Vasca han continuado a muy buen ritmo: catalogación, conservación, servicios a la comunidad investigadora, colaboraciones con otras instituciones, etc. Algunas de estas colaboraciones han estado vinculadas a las actividades que se han organizado con motivo del centenario del nacimiento de Néstor Basterretxea (uno de los fundadores de la Filmoteca Vasca) y en las que la institución ha participado de forma activa. La programación ha recuperado cifras de espectadoras y espectadores de 2019, nuestro récord hasta ahora. En definitiva, en 2024 se han sentado bases sólidas para un futuro lleno de retos para una institución vasca emergente que ya vislumbra y prepara su 50º aniversario para 2028.

Urteko zenbakiak

El año en cifras



11.567

IKUS-ENTZULEAK
ESPECTADORES/AS

39 PROIEKTATUTAKO TITULUAK
(+1 IKASTETXEAK BELODROMOAN)
TÍTULOS PROYECTADOS
(+1 IKASTETXEAK BELODROMOAN)

144 PROIEKZIO-KOPURUA
(+6 IKASTETXEAK BELODROMOAN)
NÚMERO DE PROYECCIONES
(+16 IKASTETXEAK BELODROMOAN)

13 EUSKARAZKO AZPITITULUEKIN EMAN DIREN FILMAK
PELÍCULAS SUBTITULADAS AL EUSKERA

843 OBJEKU DIGITAL GORDE DIRA GORDAILU DIGITALEAN
OBJETOS DIGITALES ALMACENADOS EN EL REPOSITORIO DIGITAL

1.817 ERREGISTRO BERRI KATALOGO BIBLIOGRAFIKOETAN
NUEVOS REGISTROS BIBLIOGRÁFICOS CATALOGADOS

82 FAMILIA-GORDAILU IKUSKATU ETA DIGITALIZATUAK
ETA 68 ORDU BAINO GEHIAGO DOKUMENTATU DIRA
DEPÓSITOS FAMILIARES INSPECCIONADOS Y DIGITALIZADOS
Y MÁS DE 68 HORAS DOCUMENTADAS

279 ORDU IKUSI DITUZTE 138 PERTSONEK
HORAS VISIONADAS POR 138 PERSONAS

125 ZINEMA-ARETOAREN LAGAPENA
CESIÓN DE LA SALA DE CINE

554 PRENTSAKO AIPAMEN-KOPURUA
MENCIONES EN PRENSA

SARTUTAKO IKUS-ENTZUNEZKO MATERIALA

| |
|---|
| 22 DCP |
| 64 artxibo digital |
| 7 DVD |
| 16 gordailugilek utzitako 276 Super-8mm-ko bobina |
| 4 gordailugilek utzitako 8 mm-ko 20 bobina |
| 16 gordailugilek utzitako 16 mm-ko 66 bobina |
| 2 gordailugilek utzitako 9,5 mm-ko 12 bobina |
| 60 kopiako 132 bobina |
| 17 gordailugilek utzitako 16 mm-ko negatiboen 17 bobina |
| Betacam SP 6 zinta |
| U-matic 3 zinta |
| VHS 28 zinta |
| 33 Hazbete-zinta |
| Video-8ko zinta 1 |

INGRESO DE MATERIAL AUDIOVISUAL

| |
|---|
| 22 DCPs |
| 64 archivos digitales |
| 7 DVDs |
| 276 bobinas de super-8mm de 16 depositantes |
| 20 bobinas de 8mm de 4 depositantes |
| 66 bobinas de 16mm de 16 depositantes |
| 12 bobinas de 9,5mm de 2 depositantes |
| 132 bobinas de 60 copias |
| 17 bobinas de negativos de 16mm de 7 depositantes |
| 6 cintas Betacam sp |
| 3 cintas u-matic |
| 28 cintas VHS |
| 33 cintas de pulgada |
| 1 cinta video-8 |

Proiektu bidegilea Proyecto faro

Zinemagintzaren eremuko bilakaera teknologikoak eta garai bateko digitalizazio-metodoen zehaztasunak azkarrak erakutsi dute beharrezkoa dela filmak berreskuratzea, beren jatorrizko itxurarekin ikus ditzan jendeak. Euskadiko Filmetegiak, Euskal Herriko ondare zinematografikoa zaindu eta zabaltzeko konpromisoari eusteko, *Tasio* filma (Montxo Armendáriz, 1984) zaharberritzea erabaki zuen. Proiektuak, Filmetegiaren beraren sail teknikoak zuzendua Mercury Films-en adostasunarekin, aukera izan du Espainiako Filmetegian kontserbatutako jatorrizko negatiboak eta garaiko proiektzio-kopiak erabiltzeko erreferentzia gisa, jatorrizko kolorea berreskuratzea ahal izateko. Materiala Italiako Boloniako L'Immagine Ritrovata laborategira eraman zen gero, eta han aztertu eta prestatu zuten digitalizatu ahal izateko. Lehenengo fase analogikoaren ondoren, bertute gure teknikariekin harremanetan, kolorea zuzentzeko eta soinua berritzeko prozesuari ekin zitzaion, eta Armendárizek berak gainbegiratu zituena lan horiek Bolonian.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren laguntza ekonomikoa funtsezkoa izan da zaharberritze-lan honetarako, zeinaren bidez gure kulturaren film ikoniko bat biziberritu den, *Tasio* gurea eta unibertsala baita. Montxo Armendáriz zinemaren maisu gisa -klasiko gisa onartu du munduak. Euskadiko Filmetegiarentzat ohore bat izan da harekin batera aritu izana.

La evolución tecnológica en el ámbito cinematográfico y el rápido envejecimiento de los antiguos métodos de digitalización han determinado la necesidad de recuperar películas para devolverlas al público en su aspecto original. La Filmoteca Vasca, en su compromiso con la preservación y difusión del patrimonio cinematográfico del País Vasco, decidió emprender el trabajo de recuperación de *Tasio* (Montxo Armendáriz, 1984). El proyecto, liderado por el departamento técnico de la propia Filmoteca y con el acuerdo de Mercury Films, ha podido contar con los negativos originales conservados en la Filmoteca Española y con copias de proyección de la época como referencia para poder recobrar el color original. El material viajó al laboratorio italiano L'Immagine Ritrovata de Bolonia, donde fue revisado y preparado para su digitalización. Tras una primera fase analógica y en constante contacto con nuestras técnicas, se acometió el proceso de corrección de color y restauración de sonido, trabajos que supervisó en la ciudad italiana el propio Armendáriz.

El apoyo económico del departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco ha sido clave para llevar a cabo esta restauración, que da así nueva vida a una película icónica de nuestra cultura. *Tasio* es nuestra y es universal. Montxo Armendáriz ha sido reconocido por el mundo como uno de los maestros del cine, un clásico. A la Filmoteca Vasca le cupo el honor de acompañarle.

*Amaia Laso, Montxo Armendáriz eta Patxi Bisquert Donostia Zinemaldian
Amaia Laso, Montxo Armendáriz y Patxi Bisquert en el Festival de San Sebastián*



Montxo Armendáriz zinemagilea, Joxean Fernández (Euskadiko Filmategiko zuzendaria), Andoni Iturbe (Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordea) eta Thierry Frémaux (Cannes-ko Zinemaldiko zuzendaria) Cannesen / El cineasta Montxo Armendáriz, Joxean Fernández (director de la Filmoteca Vasca), Andoni Iturbe (viceconsejero de Cultura del Gobierno Vasco) y Thierry Frémaux (director del Festival de Cannes) en Cannes

Artxiboa

Archivo

843 OBJEKTU DIGITAL GORDE DIRA GORDAILU DIGITALEAN (175 TB)

2024an, material analogikoa zaintzeko planak finkatu dira, bai euskarri bideografikoan, bai euskarri fotokimikoan daudenak. Arreta berezia jarri zaio jarduera-protokoloak hobetzeari; bereziki, euskararen erabilera bultzatzeari eta lan-fluxuak arintzeari.

Material fotokimikoari dagokionez, ahalegin handia egin da material hondatua kontrolatzeko, arazoak detektatu ahal izateko. Artxiboko materiala kudeatzeko softwarea -EUN- eguneratu da, eta haren datu-basea hodeira migratu da, plataformarako sarbidea hobetzeko.

Zaintza digitalari dagokionez, materiala Filmategiaren gordailu digitalean gordetzen jarraitu da. 101 objektu digital izan dira (Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako filmak eta Filmategian digitalizatutako materiala). Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza bati esker, gordailuaren edukiera handitzeko aukera izan da, eta orain 288 TBko edukiera du.

843 OBJETOS DIGITALES ALMACENADOS EN EL REPOSITORIO DIGITAL (175 TB)

En 2024 se han consolidado los planes de preservación del material analógico, tanto en soporte videográfico como en soporte fotoquímico. Se ha dedicado especial atención a la mejora de los protocolos de actuación, impulsando el uso del euskera y agilizando los flujos de trabajo.

En el marco de la preservación fotoquímica, cabe subrayar el control masivo del material fotoquímico deteriorado para detectar problemas. El software de gestión del material en el archivo, EUN, se ha actualizado y se ha migrando su base de datos a la nube para mejorar el acceso a la plataforma.

Respecto a la preservación digital, se ha continuado ingestado en el repositorio digital de la Filmoteca. Han sido 101 objetos digitales (películas subvencionadas por el Gobierno Vasco y material digitalizado en la Filmoteca). Gracias a una subvención del Gobierno Vasco, ha sido posible ampliar el espacio de almacenamiento del repositorio, que ahora tiene una capacidad total de 288 TB.



Zerbitzari digitala / Servidor digital

Katalogazioa eta dokumentazioa

Catalogación y documentación

KATALOGAZIOA

2024an, asko aurreratu da Euskadiko Filmategiko funtsak katalogatzeko prozesuan, KOHA tresna erabiliz (liburutegiak kudeatzeko sistema integratua da). Hala, 15.000 erregistro bibliografiko baino gehiago dituzte eskura erabiltzaileek OPACen (onlineko katalogoa). Aurten, 1.817 erregistro berri katalogatu dira, eta OPACek dokumentu- eta bibliografia-funtsen artean bereizteko bilaketa-aukera ematen du orain.

2024AN KATALOGATUTAKO ERREGISTROEN SAILKAPENA

1. Euskarri fotokimikoko filmak: 286
 - 268 komertzial/profesional
 - 18 gordailu familiar/amateur
2. Artxibo digitalak: 277
 - Euskadiko Filmategian sortutako masterrak
 - Ekoizle pribatuetatik eta Eusko Jaurlaritzatik jasotako artxiboak
3. Bidegrabazioak: 951
 - U-matic zintak, Blu-Ray diskoak, etab.
4. Liburuak: 206
5. Gidoiak: 32
6. Aldizkari berriak: 6
7. Material grafikoak: 59 titulu

CATALOGACIÓN

En 2024, se ha avanzado significativamente en el proceso de catalogación de los fondos de la Filmoteca Vasca mediante el uso de la herramienta KOHA (sistema integrado de gestión bibliotecaria). Así, más de 15.000 registros bibliográficos se han puesto a disposición de los usuarios a través del OPAC (catálogo online). Este año se han catalogado 1.817 nuevos registros, y el OPAC ahora permite búsquedas diferenciadas entre fondos documentales y fondos bibliográficos.

CLASIFICACIÓN DE LOS REGISTROS CATALOGADOS EN 2024

1. Películas en soporte fotoquímico: 286
 - 268 comerciales/profesionales
 - 18 depósitos familiares/amateurs
2. Archivos digitales: 277
 - Másteres creados en la Filmoteca Vasca
 - Archivos recibidos de productoras privadas y del Gobierno Vasco
3. Videgrabaciones: 951
 - Desde cintas U-matic hasta discos Blu-Ray
4. Libros: 206
5. Guiones: 32
6. Nuevos títulos de revistas: 6
7. Materiales gráficos: 59 títulos

DOKUMENTAZIOA**Material grafikoa**

50 film zinematografikori baino gehiagori lotutako material grafikoei buruzko dokumentazioa eta deskribapen zehatza. Material horien artean: argazkiak, fotokromoak, diapositibak, press-kitak, kartelak eta filmekin lotutako bestelako sustapen-elementuak.

Videoma (ikusteko plataforma)

2024an, 82 ikus-entzunezko artxibo berri gehitu zitzaizkion plataformari, 68 irudi-ordu.

LABURPENA

- 15.000 izenburu baino gehiago daude eskura OPACen.
- 1.817 erregistro berri katalogatu dira.
- Bilaketetan dokumentu- eta bibliografia-funtsak bereizteko aukera.
- 82 fitxategi gehitu zaizkio Videomari, eta 68 ordu baino gehiago dokumentatu dira.

DOCUMENTACIÓN**Material gráfico**


Documentación y descripción detallada de materiales gráficos asociados a más de 50 títulos cinematográficos. Estos materiales incluyen: fotografías, fotocromos, diapositivas, press kits, carteles y otros elementos promocionales relacionados con las películas.

Videoma (plataforma de visionado)

En 2024 se incorporaron 82 nuevos archivos audiovisuales a la plataforma, sumando más de 68 horas de imágenes (actualmente hay 2.768 horas), todas ellas identificadas y documentadas.

RESUMEN

- Más de 15.000 registros disponibles en el OPAC.
- 1.817 nuevos registros catalogados.
- Diferenciación en las búsquedas entre fondos documentales y bibliográficos.
- 82 archivos añadidos a Videoma, con más de 68 horas documentadas.



Euskadiko Filmattegiko dokumentalista irudiak dokumentatzen / Documentalista de la Filmoteca Vasca documentando imágenes

Digitalizazioa

Digitalización

ZINEMA PROFESIONALA ETA AMATEURRA DIGITALIZATZEA

Urtean zehar, sail teknikoa formatu desberdinetako filmak ikuskatzeaz eta digitalizatzeaz arduratu da. 2023tik, MWA eskaner berri bat du horretarako. Lan teknikoen artean, nabarmentzekoa da Ane Muñoz Mitxelena zuzendari gipuzkoarraren *El salto de Beamon* (2004) filmaren digitalizazioa (4K), artxiboan gordetako 35 mm-kopia positibotik abiatuta.

Kutxa Fundazioak Isabel Herguerari buruz antolatutako erakusketa aitzakia egokia izan zen 16 mm-ko *Safari* (1988), *Cante de ida y vuelta* (1989) eta *El sueño de Iñigo* (1990) lanen jatorrizko negatiboak ikuskatzeko eta 4K formatuan digitalizatzeko.

Hauek ere digitalizatu dira: *Operación H* (Fernando Larruquert, 1963), Arte Ederren Bilboko museoa eskatuta; *Euskara eta arrauna* (Antxon Eceiza, 1980); *Euskara eta kirola* telesailaren kapitulu bat (Bertan Filmeak ekoiztetxe donostiarra ekoiztia); eta *Frío sol de invierno* (Pablo Malo, 2004), Televisión Españolak eskatuta. Hiru filmak 4K formatuan digitalizatu dira, Filategiko artxiboan gordetako kopia positiboetatik abiatuta.

ETXEKO ZINEMA DIGITALIZATZEA

18 gordailu familiar ikuskatu eta digitalizatu dira; horien artean, 2023 eta 2024ko materiala eta proiektu espezifikotarako berriro digitalizatutako materialak (aurreko urteetan eskaneatutakoak) daude. Nabarmentzekoa da Maddi Barberren *Piedra y bolsa* erakusketa, Filategian gordetako zenbait filmekin egina eta San Telmo Museoa erakutsia.

DIGITALIZACIÓN CINE PROFESIONAL Y AMATEUR

A lo largo del año el departamento técnico, que desde 2023 cuenta con el nuevo escáner MWA, se ha encargado de la inspección y digitalización de películas en diferentes formatos. Entre los trabajos técnicos destaca la digitalización en 4K del título *El salto de Beamon* (2004), de la directora guipuzcoana Ane Muñoz Mitxelena, a partir de la copia positiva en 35mm conservada en el archivo.

La exposición de Kutxa Fundazioa sobre la figura de Isabel Herguera fue el pretexto para inspeccionar y digitalizar los negativos originales en 4K de las obras en 16mm *Safari* (1988), *Cante de ida y vuelta* (1989) y *El sueño de Iñigo* (1990).


También se han digitalizado: *Operación H* (Fernando Larruquert, 1963), por petición del Museo de Bellas Artes de Bilbao; *Euskara eta arrauna* (Antxon Eceiza, 1980); un capítulo de la serie *Euskara eta kirola* (producida por la productora donostiarra Bertan Filmeak); y *Frío sol de invierno* (Pablo Malo, 2004), por encargo de Televisión Española. Las tres películas han sido digitalizadas en 4K a partir de copias positivas conservadas en el archivo de la FilMOTECA.

DIGITALIZACIÓN CINE DOMÉSTICO

Se han inspeccionado y digitalizado 18 depósitos familiares, entre los que hay material de 2023 y 2024 y materiales re-digitalizados (que ya habían sido escaneados en años anteriores) para diversos proyectos específicos. Destaca el proyecto expositivo *Piedra y bolsa* de Maddi Barber, confeccionado a partir de varias películas conservadas en la FilMOTECA, y que se mostró en el Museo San Telmo.

Familia-materiala, digitalizatua eta formatuaren arabera kontserbatua:

Material familiar digitalizado y conservado según el formato:



MATERIAL GRAFIKOA ETA BIBLIOGRAFIKOA DIGITALIZATZEA

2024ko amaieran, Filmategiak argazki, diapositiba, film eta abarretarako eskaner bat erosi du, eta material grafikoak digitalizatzeko prozesuari ekin dio: argazkiak, fotokromoak, katalogoak, press-bookak eta abar.

Azken bi hilabeteetan digitalizatu eta katalogatutako materialak:

DIGITALIZACIÓN MATERIAL GRÁFICO Y BIBLIOGRÁFICO

A finales de este año la Filmoteca ha adquirido un escáner para fotografías, diapositivas, películas, etc., y se ha comenzado el proceso de digitalización de materiales gráficos como fotografías, fotocromos, catálogos, press-books, etc.

Materiales digitalizados y catalogado en los últimos dos meses:

| MATERIAL-MOTA TIPO DE MATERIAL | DIGITALIZATUA ETA KATALOGATUA DIGITALIZACIÓN Y CATÁLOGO |
|--|--|
| Argazkiak / Diapositibak Fotografías / Diapositivas | 219 |
| Fotokromoak Fotocromos | 80 |
| Katalogoak / Press Kitak Catálogos / Press Kits | 31 |



Cante de ida y vuelta (Isabel Herguera, 1989) pelikularen fotograma / Fotograma de la película *Cante de ida y vuelta* (Isabel Herguera, 1989)

**FILMATEGIAK EGINDAKO
ZAHARBERRITZE-LANAK: NAFARRAKO
IKAZKINAK-CARBONEROS DE NAVARRA
(MONTXO ARMENDÁRIZ, 1981)**

Lehen aldiz, Euskadiko Filmategiko langile teknikoek film bat osorik zaharberritu dute erakundearen instalazioetan. Eskaner berria eta horrelako lanetarako behar diren hardware eta softwarea erosi ondoren, Filmategiak *Nafarrako ikazkinak-Carboneros de Navarra* (Montxo Armendáriz, 1981) zaharberritu du. Armendárizen *Tasio* lehen film luzearen (1984) ernamuina izan zen film hori.

Nere Pagola teknikariak egin du zaharberritze-lana. Lehendik zeuden materialak aurrez ikertu ondoren (oso urriak ziren), filmaren negatiboak oso egoera txarrean zeudela ikusi zen. Euskadiko Filmategiak orain arteko kopia positibo guztien artean egoera onenean dagoena dauka, eta artxibo horretatik abiatuta egin da digitalizazio-prozesua.

Digitalizatu ondoren, egonkortasuna eman zaio, dagozkion kolore-zuzenketak egin zaizkio, eta kopia fotokimikoaren akatsak digitalki konpondu.

Zaharberritze-lan guztiak zintaren zuzendariak gainbegiratuta egin dira, eta berak eman dizkie jarraibideak sail teknikoko langileei.


**RESTAURACIONES PROPIAS DE
FILMOTECA: NAFARRAKO IKAZKINAK-
CARBONEROS DE NAVARRA
(MONTXO ARMENDÁRIZ, 1981)**

Por primera vez el personal técnico de la Filmoteca Vasca ha restaurado una película de forma íntegra en las instalaciones de la institución. Tras la compra del nuevo escáner y de los hardware y software necesarios para realizar este tipo de trabajos, la Filmoteca ha restaurado *Nafarrako ikazkinak-Carboneros de Navarra* (Montxo Armendáriz, 1981). Esta película fue el germen de su primer largometraje *Tasio* (Montxo Armendáriz, 1984).

El trabajo lo ha llevado a cabo la técnica, Nere Pagola. Tras realizar una investigación previa de los materiales existentes, que eran muy escasos, se comprobó que los negativos de la película se encontraban en muy malas condiciones. La Filmoteca Vasca conserva la copia positiva en mejor estado de todas las existentes y la digitalización se ha realizado a partir de ese archivo.

Una vez digitalizada, se ha procedido a darle estabilidad, hacerle las correcciones de color pertinentes y a subsanar digitalmente las imperfecciones que tenía la copia fotoquímica.

Toda la restauración se ha realizado bajo la supervisión del director de la cinta, que ha dado todas las pautas al personal del departamento técnico.



*Nere Pagola (Euskadiko Filmategiko teknikaria) eta Montxo Armendáriz zinemagilea Nafarrako ikazkinak zaharberritzen Euskadiko Filmategian
Nere Pagola (técnica de la Filmoteca Vasca) y el director Montxo Armendáriz restaurando Carboneros de Navarra*

Sarbidea

Acceso

IRUDIEN KONTSULTA

2024an, 138 lagunek 118 lan ikuskatu zituzten Tabakalerako egoitzan. Guztira 279 ordu ikuskatu ziren.

Ikuskatutako lanen kopurua nabarmen hazi da 2023koarekin alderatuz gero (70 ikuskatu ziren 2023an eta 118, 2024an). Era berean, Filategitik pasatutako pertsona-kopurua ere 100dik 130eraino hazi da. Amaitzeko, ikuskatze-orduen kopurua 162tik 279ra igo da.

Ikuskatzeen erdiak helburu akademikoak izan ditu, eta beste erdiak ikus-entzunezko proiektu bat izan du helburu.

Gainera, arlo horretan funtsezkoa izaten jarraitzen du Elías Querejeta Zine Eskolarekin (EQZE) lankidetzan aritzea. Aipagarria da Rick Prelingerrek emandako tailerra; Filategiak bere artxiboko irudiak laga zituen tailer horretarako.

LIBURUTEGIRAKO SARBIDEA

2023ko datuekin alderatuta, % 50 baino gehiago igo dira liburutegira egindako bisitak. Hazkunde horrek zerikusi zuzena du, neurri handi batean, Euskadiko Filategiaren, EQZEren eta Donostia Zinemaldiaren arteko lankidetzarekin, bai eta ikasle eta irakasleek beren ikerketa-proiektuetarako egiten dituzten eskaera gero eta ugariagoekin ere.

CONSULTA DE IMÁGENES

En 2024, 138 personas realizaron 118 visionados en la sede de Tabakalera. En total, se visualizaron 279 horas.

El número de visionados ha crecido significativamente con respecto a 2023 (de 70 en 2023 a 118 en 2024). Asimismo, el número de personas que han pasado por la Filmoteca aumentó de 100 a 138. Finalmente, el número de horas visualizadas ha pasado de 162 a 279.

La mitad de los visionados ha tenido fines académicos y la otra mitad tenía por objeto un proyecto audiovisual.

Además en este ámbito, la colaboración con la Elías Querejeta Zine Eskola (EQZE) sigue siendo fundamental. Cabe destacar el taller impartido por Rick Prelinger, para el que la Filmoteca cedió imágenes de su archivo.

ACCESO A LA BIBLIOTECA

En comparación con 2023, las visitas a la biblioteca han registrado un aumento de más del 50%. Este crecimiento se debe, en gran medida, a la colaboración de la Filmoteca Vasca con la EQZE y el Festival de San Sebastián, así como a la creciente demanda de alumnos/as y profesores/as para sus proyectos de investigación.



Persona bat liburutegian kontsulta bat egiten / Una persona realizando una consulta en la biblioteca

ONLINEKO KATALOGOA ETA MULTIMEDIA

- Vimeo: 2.135 erabiltzaile bakar / 515 ikuskatze-ordu
- Ikustaldiak, guztira: 4.541
- Inpresioak/Interakzioak: 34.432

CATÁLOGO ONLINE Y MULTIMEDIA

- Vimeo: 2.135 usuarios/as únicos/as / 515 horas visionadas
- Vistas totales: 4.541
- Impresiones/interacciones: 34.432

PROIEKZIO-ARETOA LAGATZEA

CESIÓN DE LA SALA DE PROYECCIONES

| | 2023 | 2024 |
|---|------|------|
| Guztira / Todos | 124 | 125 |
| Donostia Zinemaldia / Festival de San Sebastián | 25 | 31 |
| Elías Querejeta Zine Eskola | 57 | 43 |
| Tabakalera | 8 | 12 |
| Ikusmira Berriak | 5 | 0 |
| Donostia Kultura | 1 | 1 |
| Filmategia / Fillmoteca | 10 | 14 |
| Bisitak / Visitas | 6 | 6 |

Proiektu bereziak

Proyectos especiales

JAVIER GARRETA FUNTSA

Euskal Mendizaletasunaren Museoaren (EMMOA) eskaera bati esker, Filategian jaso ahal izan zen Javier Garreta alpinista eta zinemagile nafararren film-materiala. Garreta izen garrantzitsua da 1970eko eta 1980ko hamarkadetako mendiko zinema amateurrean, garai hartako euskal espedizio handietan parte hartu baitzuen, eta haien lekukotza jaso. Bere kameraren bitartez, alpinismo-espedizioak dokumentatu ditu, bai eta euskal paisaia eta haren ezaugarriak ere, betiere begirada gizatiar eta pertsonal batez.

Super 8ko eta 16 mm-ko 18 film digitalizatu dira, hala nola *Operación Qazi-Dhe 78 - Noshaq (7492 metros)* (1978), *La expedición navarra al Himalaya* (1979) eta *La sombra del K2* (1984), bai eta *Contrastes/Kontrasteak* (1982) ere, zeinak Nafarroako irudiak jasotzen baititu, urtaroz urtaro eginak.

NÉSTOR BASTERRETXEAREN JAIOTZAREN MENDEURRENA

2024an, Néstor Basterretxearen jaiotzaren mendeurrena ospatu da. Nazioartean ospetsu, eskultore, margolari eta zinemagile izateaz gainera, Euskadiko Filategiaren sortzaileetako bat ere izan zen. Hori dela eta, Bermeon jaiotako artistari eskainitako hainbat ekitaldi eta ikastarotan parte hartu du gure erakundeak.

- Néstor Basterretxearen familiak Artium Museoan utzi zituen artistaren lanak eta haiekin lotutako dokumentazioa. Hori dela eta, Basterretxeari eskainitako ikastaro bat antolatu zuen Artiumek Euskal Herriko Unibertsitatearen uda-ikastarotetan, Néstor Basterretxearen ondare dokumentalaren hurbilketa bat izenburupean. Basterretxearen obraren adituek eta zenbait erakunde eta artxibotako ordezkariak hartu zuten parte; besteak beste, Eresbilekoak, Lazkaoko Beneditarren Artxibokoak eta Artiumekoak. Ikastaroaren arduradunek Euskadiko Filategia gonbidatu zuten

FONDO JAVIER GARRETA

Gracias a una petición del Museo Vasco de Montaña (EMMOA) fue posible incorporar a la Filmoteca el material filmico del alpinista y cineasta navarro Javier Garreta. Garreta ha sido una figura relevante del panorama cinematográfico amateur de montaña de los años 70 y 80, participando y siendo testigo de las grandes expediciones vascas de aquella época. A través de su cámara ha documentado tanto las empresas del alpinismo como el paisaje vasco y sus peculiaridades, con una mirada humana y personal.

Se han digitalizado 18 películas en Super 8 y 16mm, entre las que destacan *Operación Qazi-Dhe 78 - Noshaq (7492 metros)* (1978), *La expedición navarra al Himalaya* (1979) y *La sombra del K2* (1984), así como *Contrastes/Kontrasteak* (1982), que recorre Navarra en las diferentes estaciones del año.

CENTENARIO DEL NACIMIENTO DE NÉSTOR BASTERRETXE

En 2024 se ha celebrado el centenario del nacimiento de Néstor Basterretxea. El escultor, pintor y cineasta de fama internacional fue, además, uno de los fundadores de la Filmoteca Vasca. Por ello, la institución se ha involucrado en varios actos de homenaje y cursos dedicados al artista nacido en Bermeo.

- La familia de Néstor Basterretxea depositó en Artium Museo obras del artista y documentación relacionada. Por ello, el centro organizó uno de los cursos de verano de la Universidad del País Vasco dedicado a Basterretxea, con el título *Una aproximación al legado documental de Néstor Basterretxea*. En dicho curso participaron expertos en la obra de Basterretxea y varios representantes de instituciones y archivos como Eresbil, Archivo de los Benedictinos de Lazkao o el propio Artium Museo. La Filmoteca Vasca

hitzaldietako bat ematera. Hala, Ion Lopez Barrena Kontserbazio Saileko zuzendariak *Néstor Basterretxea Ama Lurretik Euskadiko Filmategira* izenburuko hitzaldia eman zuen, eta *Ama Lur* filmaren egilearen ibilbide zinematografikoa errepasatu zuen.

- Azaroan, Néstor Basterretxearen ibilbide zinematografikoari buruzko hitzaldi bat eskaini zen, eta *Operación H* filma proiektatu zen, Elgoibarko Makina Erreminta Museoa.
- Abenduan, Praktika artistiko garaikideen hastapenak 2024. *Néstor Basterretxearen mendeurrena* ikastaroan parte hartu zuen Filmategiak. Aurrez aurre eta online parte hartzeko aukera eman zuen UNEDek (Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala) eskainitako ikastaroak. Ion Lopez Barrena Filmategiko Kontserbazio zuzendariak *Basterretxea y el cine. De Ama Lur a la Fílmoteca Vasca* ponentzia aurkeztu zuen.

fue invitada a ofrecer una de las ponencias. El director del departamento de conservación, Ion López Barrena, fue el encargado de pronunciar *Néstor Basterretxea Ama Lurretik Euskadiko Filmategira*. En la conferencia se hizo un repaso a la trayectoria cinematográfica del autor de *Ama Lur*.

- En noviembre se ofreció una conferencia sobre la trayectoria cinematográfica de Néstor Basterretxea y se proyectó la película *Operación H*, en el Museo de Máquina-Herramienta de Elgoibar.
- En diciembre, la Fílmoteca participó en el Curso de introducción a las prácticas artísticas contemporáneas. *Aniversario Néstor Basterretxea* (presencial y on line) de la UNED (Universidad Nacional de Educación a Distancia). Ion López Barrena, director de Conservación de la Fílmoteca, ofreció la ponencia *Basterretxea y el cine. De Ama Lur a la Fílmoteca Vasca*.

"Recuerdos montañosos" fotograma



"Operación Hircamendi" fotograma

Ion Lopez Barrena (Euskadiko Filmategiko Kontserbazio zuzendaria) hitzaldi batean Elgoibarko Makina Erreminta Museoa / Ion Lopez Barrena (director de Conservación de la Fílmoteca Vasca) en una charla en el Museo de la Máquina Herramienta de Elgoibar

Programazioa

Programación

Bi urtez Lyongo Lumière Institutuarekin lankidetzan aritu ondoren, 2024an hasita, Euskadiko Filmategiak eta Donostia Zinemaldiak zinema klasikoko jaialdi bat antolatzen dute, hiru zatitan garatua: bi, Zinemaldian bertan, film klasiko leheneratuak eta atzerabegirakoa eskaintzeko (*Italia violenta* izan zen 2024koa), eta hirugarrena, Euskadiko Filmategiaren egoitzetan. Ziklo honen izen orokorra Klasikoak da, eta berriki zaharberitutako filmak baino ez dira proiektatzen.

Oro har, ikusle-kopuruak gora egiten jarraitu du, eta 2024an 11.000 ikusleren muga gainditu da (11.567), 2019tik gertatzen ez zena; gainera, ia 2.000 ikusle irabazi dira 2023ko datuekin alderatuta (9.710). Saio bakoitzeko ikusle-ratioak ere gora egin du, 2023ko 77,68tik 80,33ra pasatu baikara 2024an.

Datuak egoitzak aztertuz gero, Donostian behar-kada nabari da, 2023ko saioko 145,91 ikusletik 2024ko 124,67ra. Bilbon (egoitza horri Arte Ederren Bilboko Museoko obrek eragiten diote oraindik), berriz, apur bat igo da ikusle-kopuruaren batez bestekoa, 2023ko 111,48tik (ikusle-kopurua saioko) azken ekitaldiko 125,76ra. Bilboko emanaldiak Bizkaia Aretoan (EHU) egiten dira.

Gasteizi dagokionez, 24,79tik (ikusle-kopurua saioko) 35,03ra pasatu gara, igoera nabarmena.

Iruñeko kopuruak ere nabarmen hazi dira: 45,29 ikusle saioko 2023an, eta 60,57 2024an. Eta Donibane Lohitzune ere goranzko joerari eusten dio, igoera txikia bada ere: 30,18 ikusle saioko 2023an, eta 38,14 2024an.

Tras dos años de colaboración con el Instituto Lumière de Lyon, a partir de 2024 Fimoteca Vasca y el Festival de San Sebastián han pasado a organizar un festival de cine clásico, desarrollado en tres partes: dos, durante el propio festival, con el ciclo que se dedica a películas clásicas recuperadas y la retrospectiva (*Italia violenta* fue la del año 2024) y la tercera, en las distintas sedes de la Fimoteca Vasca. El nombre genérico de este ciclo es Klasikoak, y solo se proyectan películas recientemente restauradas.

En términos generales, el número de espectadores ha seguido creciendo, y en 2024 se ha superado la barrera de los 11.000 espectadores/as (11.567), algo que no sucedía desde 2019, ganando además casi 2.000 espectadores/as respecto a 2023 (9.710). También sube la ratio de espectadores/as por sesión, de los 77,68 de 2023 a los 80,33 de este ejercicio.

Analizando los datos por sedes, en San Sebastián se observa un descenso desde los 145,91 espectadores/as por sesión de 2023 hasta los 124,67 de 2024. En Bilbao (sede que sigue afectada por las obras en el Museo de Bellas Artes), la media de espectadores/as, por contra, sube ligeramente, desde los 111,48 (espectadores/as por sesión) de 2023 hasta los 125,76 del último ejercicio. Las proyecciones en Bilbao tienen lugar en el Bizkaia Aretoa (UPV/EHU).

En el caso de Vitoria hemos pasado de los 24,79 e/s a los 35,03 e/s, lo que supone un aumento significativo.

Pamplona también experimenta un claro crecimiento: 45,29 e/s en 2023 contra los 60,57 e/s de 2024. Y San Juan de Luz se mantiene en una línea ligeramente ascendente: 30,18 e/s (2023); 38,14 e/s (2024).

Ikusle kopuru saioko

Espectadores/as por sesión

| | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | TOTAL |
|--|--------|--------|-------|-------|-------|--------|---------------|
| Ikusleak, guztira Total espectadores/as | 11.513 | 5.856 | 5.715 | 7.707 | 9.710 | 11.567 | 52.068 |
